

SISTEMA EKONOMIKO EZBERDINAK

MERKATU EKONOMIA (kapitalismoa)

Ezaugarriak:

1. **Produkzio-faktoreen jabetza pribatua**
Lurra, lana eta kapitala pribatuak dira.
2. **Askatasun indibiduala** (arlotan ekonomikoan)
Produkzio faktoreen jabeak libreak dira nahi dutena ekoizteko, ekoizpena nahi duten moduan saltzeko eta nahi dutena erosteko.
3. **Norberekeria**
Norberak bere onura bilatzen du eta ez besteena.
4. **Informazio perfektua**
Kontsumitzaileek ondasun guztien prezioak eta ezaugarriak ezagutzen dituzte.
5. **Portaera arrazionala:**
Norberak bere onurarik handiena bilatzen du. Bere portaera egokia izango da ahalik eta etekin handiena lortzeko.

Baliabideen esleipena merkatu ekonomian:

Baliabideen esleipena **merkatuak egiten du:**

1. **Kontsumitzaileek**, euren beharrezan arabera, **eskatu egiten dute**.
2. Ekoizleek **seinaleak** jasotzen dituzte (kontsumitzaileek zer nahi duten asmatzeko)
3. Seinaleak **prezioen bidez** transmititzen dira:
 - a. prezioak igotzen ari badira: kontsumitzaileek dagoena baino gehiago nahi duten seinale → Gehiago ekoiztu behar da.
 - b. prezioak jaisten ari badira: kontsumitzaileek dagoena baino gutxiago nahi duten seinale → Gutxiago ekoiztu behar da.
4. Produkzio faktoreak modu egokian erabiliko dira: **gizarteak eskatzen duena** ekoiztuko da.
5. **Urritasunaren seinale prezio altuak** dira: ondasun edo zerbitzu baten bat urria bada eta jende askok nahi badu, prezio altua edukiko du → Ondasuna eskuratzeko aukera kostua oso handia izango da → Asko baloratzen dutenek baino ez dute erosiko.
6. Inork ez du ezer gizartearen banatu behar: inoiz ez da ilararik egongo produktu bat eskuratzeko. **Ilarak prezioen bidez ezabatzen dira**.
7. **Ekoizleek inoiz ez dute gehiegi irabaziko**: sektore batean asko irabazten bada (etekinak oso handiak badira) berehala beste ekoizle asko hara joango dira eta hori ekoizten hasiko dira. Orduan eskaintza handituko da eta prezioak jaitsi. **KONPETENTZIA** sortuko da.
8. Kontsumitzaileek **bidezko prezioa** (prezioek betetzen dutelako ekoizpen kostua) ordainduko dute: ekoizpen kostuak eta etekin arrunta (ez gehiegizkoa) emateko bezain bestekoa.
9. **Ekonomiak ez du besterik behar** ondo funtzionatzeko.

EKONOMIA PLANIFIKATUAK (sozialismoa)

Ezaugarriak:

1. Produkzio faktoreen **jabetza publikoa**: produkzio faktore gehienak kolektiboak dira. Herria da (Estatuaren bidez) produkzio faktoreen jabea.
2. **Ez dago askatasun indibidualik** arlo ekonomikoan. Estatuak planifikatzen du zer ekoiztu behar den eta baliabideen esleipena nola gauzatu behar den. Produkzio faktoreak Estatuak agindutako moduan erabili behar dira.
3. Ez da **onura** indibiduala bilatzen baizik eta **kolektiboa**.

Baliabideen esleipena ekonomia planifikatuan:

1. Kontsumitzaileek **Estatuak agindutakoa** kontsumitzen dute.
2. Estatuak epealdi batzuetarako plangintzak egiten ditu: bost urteko plangintzak, hamar urteko plangintzak, etab.
3. **Baliabide guztiak plangintza horren arabera erabiltzen dira**: Estatuak **ZER, NOLA** eta **NORENTZAT** ekoiztu erabakiko du.
4. Ekoiztutakoa nahikoa ez bada **URRITASUNA** sortuko da, baina urritasuna ez da konponduko prezioen bidez, beste **errazionamendu (banaketa) sistema** baten bidez baizik.
5. **Prezioek ez dute** inolako **paperik jokatzen** baliabideen esleipenean. Ez dute seinalerik bidaltzen. Estatuak finkatzen ditu prezioak.
6. Gizarte gehienetan ez gara bizi merkatu ekonomia hutsetan edo ekonomia planifikatu hutsetan. Normalean **erdibideko puntu batean** gaude.

